

ZAINZAREN LABURPENA

2021

**Zaintza
Epidemiologikoaren
Unitatea**
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariorde

BIZKAIKO ZEU-KO PERTSONALA 2021. URTEAN

Administrariak

Ana Eva del Valle Araluce, Agustín Virumbrales Santibáñez

Erizainak

Xabier Beraza Ortiz, Marta de la Cruz Ortega, Itxaso González Sancristobal,
M^a Luz Sanz Yabar, Rosaura Santamaría Zuazua

Epidemiologoak

Eva Alonso Fustel, Inmaculada Baonza González, Visitación de Castro Laiz, Esther
Hernández Arricibita, Liher Imaz Goienetxea, Asier Lopez Paramio, Madalen Oribe Amores,
Nerea Muniozguren Agirre, Concha Castells Carrillo

COVID-19 errefortzuko langileak

Roger Francisco Alfaro Baca, Itziar Barañano Barrenechea, Egoitz Bikandi Pagalday,
Ainhoa Bóveda Saenz, Deiene Garcia Mutio, Laura González García,
Michael Ivan Heredia Sánchez, Malen Irizar Anguiano, Juan Miguel Legarra Zabala,
Jose Javier Lobato Gutierrez, Arrate Pilar Diaz, Danae del Pilar Millares Pasco,
Leire Sainz de Aja Gallastegui

SARRERA	4
GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIEN ZAINZA	5
Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak	5
Transmisio parenteraleko gaixotasunak	9
Arnas-transmisioa duten gaixotasunak	9
Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak	11
Bektoreek transmititutako gaixotasunak.....	12
Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak	12
Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak	13
Bestelakoak.....	16
COVID-19AREN ZAINZA. 2020-2021	19
Intzidentzia	18
Larritasuna	21
Ospitaleko erikortasuna	21
Hilkortasuna.....	23
GAIXOTASUN KRONIKOAK	30
Minbizia (GNS 10: C00-C99; D45-D47).....	29
Gaixotasun kardiobaskularrak. (GNS-10: I00-I99)	38
Arnas-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: J00-J99).....	42
Digestio-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: K00-K95)	45
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak. (F01-F99)	47
Nerbio-sistemako gaixotasunak. (G00-G99)	51
Gaixotasun endokrino, nutrizional eta metabolikoak. (GNS-10: E00-E89)	53
Sistema genito-urinarioko gaixotasunak. (GNS-10: N00-N99)	55
Erikortasun eta hilkortasunaren kanpoko arrazoiak. (CIE-10: V00-Y99)	57
ERANSKINAK	61
I ERANSKINA. Populazioak	61
II ERANSKINA. Zaintzapean dauden gaixotasunak.....	62
III ERANSKINA. Informazio mikrobiologikoko sistema (IMS).....	69
IV. ERANSKINA. Elikagaien edo pertsonen arteko transmisiozko agerraldiak	70
V ERANSKINA. Tumore gaiztoak	71
VI. ERANSKINA. Ospitaleko erikortasuna	73
VII. ERANSKINA. Hilkortasuna	74

Dokumentu honetan 2021ean Bizkaian jazotako gaixotasun transmitigarrien eta gaixotasun ez transmitigarri batzuen laburpen bat erakusten da.

Gaixotasun transmitigarriei dagokienez, EAEn zaintzapean dauden gaixotasunen bilakaera ohiko informazio sistemen bidez erakusten da: Aitortu Beharreko Gaixotasunak (ABG), Mediku Jagoleen Sarea eta Informazio Mikrobiologikoa Sistema (IMS).

Esparru horretan, 2021ean COVID-19aren presentzia nabarmena izan da oraindik ere, eta horri buruzko kapitulu zabal bat aurkeztu dugu. Gaixotasun honen agerpenaren ondorioz, gripearean zaintzatik AIaren (Arnas Infekzio Akutua) zaintzara aldatu da. Zaintza hau 2021/22 denboraldian hasi da, aurreko denboraldian gripearean birusaren zirkulazioa ia erabat desagertu ondoren.

Konfinamenduen eta SARS-CoV-2a geldiarazteko bultzatutako gainerako neurrien eraginez, 2020an zaintzapeko gaixotasun askotan kasuen jaitsierak eman ziren. 2021ean ordea, pandemiaren aurreko mailetara itzuli dira, baita handiagoetara ere, kasu batzuetan.

Gaixotasun kronikoen atalean, GNS-10 bidez sailkatutako gaixotasun talde handien artean hautatutako gaixotasun garrantzitsuenen datu deskribatzaile esanguratsuak aurkezten ditugu. Intzidentziarako, EAEko Minbiziaren Erregistroa (RCEME, 2016) eta Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoren (DGOM, 2020) Ospitaleko Alten Erregistroa, eta hilkortasunerako, Hilkortasun-Erregistroa (2020).

Erabilitako populazio izendatzaileak EUSTATen biztanleria-datuei dagozkienak dira, aztertutako urte bakoitzerako. Tasek deskribapenerako eta estandarizaziorako, 21 taldetan banatzen den biztanleriaren egitura erabiltzen dugu, 84 urte baino gehiagokoetan hiru talde zehazten baititu: 85tik 89ra, 90tik 94ra, eta gehiago. 2013ko Europako biztanleria estandarra erabiltzen da.

Erabilitako osasun-eskualdeak bost ESItan banatzen dira: Barrualde-Galdakao (Arabako Lurralde Historikoko udalerrien salbuespenaz: Llodio, Amurrio, Artzeniega, Aiala eta Okondo), Barakaldo-Sestao, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutseta, Uribe eta Bilbo-Basurtu.

Izatez Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan arren, Arabako Osasun Barrutian (Ubide eta Otxandio) edota Gipuzkoakoan (Ermua eta Mallabia) sartuta dauden udalerriek aitortutako gaixotasunak Bizkaiko datu orokorretan zenbatu dira.

Jarraian, Aitortu Beharreko Gaixotasunen (ABG) erregistro sistematik eta Informazio Mikrobiologikoko Sistematik (IMS) jasotako zainzapean dauden gaixotasun transmitigarri buruzko informazio garrantzitsuena aurkezten da. Gaixotasun batzuetarako IMStik lortutako informazioa bakarrik daukagu, beraz, ezin dugu ESlaren arabera banatu. Datu orokorrak eta ESI eta sexuaren arabera bereziak (ahal izan denean) II. Eranskinean jaso dira. Halaber, Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek IMSra aitortu dituzten gaixotasunen datuak III. Eranskinean aurkezten dira.

Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak

Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek *Campylobacter*-ek erangindako 1271 infekzio deklaratu zituzten (111,09/100 000). **Kanpilobakteriosia** batez ere oilasko-haragi kutsatuen manipulazioak eta kontsumoak eragindako gaixotasuna da. Bizkaian eta EAEn elikagaien bidez transmititutako gaixotasunen lehen kausa da.

2018ko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko oilaskoetan aurki daitezkeen *Campylobacter*-en kontrolerako araudi berri bat sortu zen. Urte horretan izan zen, 2021arekin batera, ISMtik datuak jasotzen hasi ziren 1994etik isolamendu gehien eman zen urtea.

2021.urtean, tasarik altuena (25,61/100 000) bost urte baino gutxiagoko haurretan eman zen. Kasu gehiago izan ziren gizonen artean (704 kasu, % 55) emakumeen artean baino. Bizileku ESlaren araberrako kasuen banaketari dagokionez, tasarik altuenak Bilbo-Basurtun (146,12 100 000 biztanleko) eta Ezkerraldea-Enkarterrin (140,35) izan ziren.



Iturria: IMS

Kriptosporidiaren 30 kasu deklaratu ziren (2,62/100 000). % 53 emakumeak izan ziren eta batezbesteko adina 22 urtekoa. Kasuen % 50 ekainetik irailera gertatu ziren

153 **Giardiasi** kasu deklaratu ziren (13,37/100.000), % 58 gizonak eta 34 urteko batezbesteko adina. Tasarik altuena Barrualde-Galdakaon izan zen (16,02 kasu 100 000 biztanleko) eta txikiena Uriben (11,43 kasu).


Zonalde endemikotik inportatutako **sukar tifoidearen** kasu bat erregistratu dugu (0,087/100 000).

2021ean ez zen **A hepatitis** kasurik aitortu.

E hepatitisaren hiru kasu eman ziren, guztiak arrisku-faktorerik gabeko berrogei urte baino gehiagoko gizonetan.

Listeriosiaren 16 kasu deklaratu ziren (1,40/100 000), batezbesteko adina 72 urtekoa zelarik. % 50ak minbizia izan zuen arrisku-faktore gisa, % 31k patologia kronikoak eta kasu bat abortu bat izan zuen emakume bat izan zen. Hilgarritasuna % 19koa izan zen.

Kasu batean elikagai erantzulea aurkitu zen, baimendu gabeko Arabako establezimendu batean egindako gazta bat, zeinetan Listeriako andui bera isolatu baitzen. CNMren emaitzen arabera, 2021eko anduietatik sei estatuko edo Euskadiko kluster ezberdinetakoak dira. Bizileku ESlaren arabera kasuen banaketari dagokionez, tasa 2,29/100 000 da Uriben eta 0,86/100 000 Bilbo-Basurtun.



Iturria: ABG

Mikrobiologiako laborategiek 106 **errotavirus** (9,26/100 000) deklaratu zituzten. Ohikoa den bezala, aitortpenen % 61, urteko hilabete hotzetan gertatu ziren, gailur epidemikoa abenduan kokatu zelarik (33 kasu). Aitortutako kasuen % 72, hiru urte baino gutxiago zituzten. Bizileku ESlaren arabera kasuen banaketari dagokionez, tasa Bilbo-Basurtuko 12,44/100 000 eta Barakaldo-Sestaoko 5,72/100 000 tasen artean kokatu da.




Iturria: IMS

Mikrobiologiako laborategiek, 489 **Norobirus** deklaratu zituzten (42,74/100 000), % 59, gizonak eta batezbesteko adina hamahiru urte; kasuen % 73, hamar urtetik beherakoen artean eman ziren. Bizileku ESlaren araberrako kasuen banaketari dagokionez, tasa 70,02/100 000 da Bilbo-Basurtun eta 6,92/100 000 Barrualden.

Salmonellosiari dagokionez, 299 kasu (26,13/100 000) erregistratu genituen, aurreko urteko 120 kasuekin alderatuz gorakada nabarmena. Kasuen % 25 hamar urtetik beherako umeetan antzeman ziren. Anduiak *S. spp* (% 36), Enteritidis (% 33) eta *S. Typhimurium* (24%) izan ziren. 2021ean *Salmonella* Enteritidisen hiru agerraldi izan ziren, 36 pertsonari eragin zietenak. Horietako bik beste agerraldi batzuekin lotura zuten estatuko bi nekazaritza-ustiatagitarako arrautzen kontsumoarekin zerikusia izan zuten. Gainera, hamalau kasu multzo ikertu ziren. ESlkako tasa Ezkerraldea-Enkarterriko 29,06/100 000 eta Uribeko 19,71/100 000 balioen artean kokatu da.


Salmonellosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Iturria: IMS

Hamasei **disenteria**-kasu deklaratu ziren (1,39/100 000), maiztasuna gizonetan handiagoa izanik (G/E arrazoa = 3) eta berrogei urteko batezbesteko adina izan zuten. Anduien % 69 *Shigella Flexneri* eta % 25 *Shigella Sonnei* izan ziren. Jakinarazitako arrisku-faktoreei dagokienez, % 38k harreman sexual arriskutsuak izan zituzten, eta kasuen % 13k lotura zuten eremu endemikoan egotearekin. Bi kasu bigarren mailakoak izan ziren.


Disenteriaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Iturria: ABG

2021ean **Yersinia**ren isolamendu kopurua %118 hazi zen 2020aren aldean. 48 kasu izan ziren (4,19/100 000), %54 gizonezkoak eta batezbesteko adina 25 urtekoa. Kasuen %40 hamar urtetik beherakoak izan ziren. %98 serotipo Enterokolitikoa izan ziren. Yersiniaren hamahiru kasuren multzo geografikoa ikertu zen, baita haien anduiak CNMra bidali ere, baina hauek jatorri komunik ez zutela ondorioztatu zen.

Yersinia isolamenduen urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Iturria: IMS

E. coli enterohemorragikoaren isolamendu-kopurua 106 izan zen (tasa: 9,24/100 000), % 13 O:157:H7 serotipoa. % 51 emakumeak izan ziren eta hauen batezbesteko adina 45 urte.

Elikagaiengatiko toxiinfekzio edo pertsonaz-pertsonako transmisiozko agerraldiak

2021an, elikagai-intoxikazio edo pertsonaz-pertsonako transmisiozko hamalau agerraldi ikertu ziren, gutxienez 299 pertsoneri eragina zitelarik (IV. Eranskina).


Sei agerraldi izan ziren ostalaritza-establezimenduetan. Horietako batean, agerraldia eragin zuen agentea *Salmonella* Enteritidis izan zela zehaztu zen, giza laginetan eta Burgosko baserri bateko arrautzetan eta ingurumen-laginetan isolatu zena. Andui berdina 2021eko maiatzean Soriako probintzian gertatutako agerraldi batzuetan isolatu zen. Gutxienez zortzi establezimenduri eta hogeita hamar pertsonari eragin zien.

Ikastetxeetan edo haurtzaindegietan lau agerraldi izan ziren; bitan pertsonatik pertsonarako transmisioa eman zen eta agente kausala Norobirusa izan zen; beste batean, *Clostridium perfringens* isolatu zen agerraldia eragin zuen elikagaian, eta laugarrenean ez zen agente kausala identifikatu.

Beste hiru agerraldi etxe partikularretan gertatu ziren. *Salmonella* hiru agerraldietako giza laginetan eta agerraldietako bi eragin zituzten elikagaietan (arrautza eta albondigak) isolatu zen. Horietako batek, Frantzia Toledoko ustiategi bateko arrautzengatik sortutako alerta batekin zerikusia izan zuen.

Sapobirusak eragindako agerraldi bat adinekoen egoitza batean gertatu zen

Salmonella eta beste kausa batzuek eragindako elikagaiengatiko toxiinfekzio agerraldiak, Bizkaia 2012-2021



Iturria: ABG

Transmisio parenteraleko gaixotasunak

B hepatitis sei kasu egon ziren, txertatu gabeko 57 urteko adin-mediana zuten pertsonetan (tartea 35-65), bost gizon eta emakume bat. Denek arriskudun praktika sexualak izan zituzten bat izan ezik (honetan infekzio iturri posiblea ezezaguna da).


Bi **C hepatitis akutu** kasu deklaratu ziren, 34 urteko gizon bat eta 37 urteko emakume bat. Batak birusaren eramaile batekin erlazio sexualak izan zituen, besteari ez zaio arriskudun esposiziorik ezagutu.

Arnas-transmisioa duten gaixotasunak

2020/2021 denboraldian **gripearen** birusaren zirkulazio minimoa egon zen. Ez zen kasurik detektatu gure sare jagolean, eta 2 eta 66 detekzio baino ez ziren erregistratu Estatuan eta Europan, hurrenez hurren

2021/2022 denboraldian, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, arnas infekzio akutuaren (AIA) zaintza ezarri da gripearen zaintza klasikoaren ordez. Gripearen birusaren bi gailur erregistratu dira jagole-laginetan; lehena 2021eko abenduaren amaieran (50-51 asteak) eta bigarrena, handiena, 2022ko martxoan (11-13 asteak).

Gripearen birusaren detekzio kopurua. Jagole sarea. 2021-2022, EAE




2022ko 16. astera arte gripearen 200 birus detektatu dira AIaren jagole-laginetan, guztiak A(H3) azpimotakoak. European, jagole-laginetako gripe-birusen % 99 A motakoak izan dira, eta % 1a B motakoak. Azpitipatutako A motako laginen artean, % 93 A(H3) eta % 7a A(H1)pdm09 izan dira.

2021an 57 **Legionelosi** kasu deklaratu ziren, 4,98/100 000eko tasarekin, azken urteetan erregistratutako altuena. Kasuen adin-mediana hirurogei urtekoa izan zen. Gizonen artean nagusi den gaixotasuna da, eta 2021ean G/E sexu-arrazoia 4,7 izan zen. Arrisku-faktoririk ohikoena tabakoaren kontsumoa izan zen (% 4,2), aurreko urteetan baino askoz ere txikiagoa. Gaixo bat hil zen, % 1,75ko hilgarritasuna suposatuz.

Sei kasuko talde bat aztertu zen Barrualde-Galdakao ESIko enpresa berean, eta memoria hau argitaratu den egunean honen ikerketak aurrera darrai.

Legionelosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2022




Iturria: ABG

2021an erregistratutako **tuberkulosi** kasuak 99 izan ziren, 100 000 biztanleko 8,65 kasu tasa, 2020an baino bi puntu gutxiago. G/E sexu-arrazoia 1,4 izan zen eta 25-34 urte bitarteko adin taldeak izan zuten intzidentziarik altuena (100 000ko 11).

Baziliferoen tasak, komunitatean ematen den bazilo-zirkulazioaren zeharkako adierazle dena, azken urteotan behatutako beheranzko joera jarraitzen du: 1,92/100 000 biztanleko. Atzerrian jaiotako pertsonen kasuen ehunekoak behera egiten jarraitzen du, guztien % 26 izan delarik.

Tuberkulosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021




Iturria: ABG

2021ean tuberkulosi multierresistentearen hiru kasu berri diagnostikatu ziren Bilbon, erresistentzia-profil bera eta ezaugarri genetiko berberak dituen talde batekoak. Talde honetako lehen kasua 2019an diagnostikatu zen eta zortzi kasu dira dagoeneko.

Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak

2021ean, Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek deklaraturako *Neisseria gonorrhoeae* isolamendu kopurua 443 izan zen. 2013 urtetik **infekzio gonokozikoaren** kasuek gora egiten jarraitzen dute.

Bombero Etxanizeko sexu transmisiozko infekzioen (STI) zentroak 311 infekzio gonokoziko deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko sexu-arrazoia 5 izan zen, eta batz besteko adina 33 urte (tartea: 17-71). %65 gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonak (GSG) ziren.



Iturria: IMS

Azken urteetan **sifilis** kasuen aitorpenak gora egin duen arren, 2021ean behera egin du, IMSri 147 kasu aitortu baitzaizkio (2020an baino % 25 gutxiago).

Bombero Etxanizeko STI zentroak 103 sifili kasu deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko sexu-arrazoia 20 izan zen, eta batez besteko adina 36 urte (tartea: 19-82). %84 GSG izan ziren.

Mikrobiologiako laborategiek ***Chlamydia trachomatis*aren bidezko infekzioen** 718 kasu deklaratu zituzten (62,76/100 000), zifra horrek gora egin du aurreko urteekin alderatuta (% 31, 2020ko datuekin alderatuta) , eta **linfogranuloma benereoaren** hamalau kasu.

Bombero Etxanizeko STI zentroak 490 *Chlamydia* kasu deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko arrazoia sifilia edo gonorrea baino txikiagoa da (G/E=2), eta batez besteko adina 31 urtekoa (tartea: 17-71). Sexu-harreman gehienak heterosexualak dira (% 65).

Deklaratu ziren hiru STIetan, atzerritar jatorriko pertsonen portzentaia % 32 izan zen. Kasuen % 17an beste STI batekin koinfekzioa zegoen, % 51k aurretik beste STI bat izana zuen eta % 12 GIB positiboak ziren. Kasuen % 46an kontaktuen ikerketa egin ahal izan zen.

EAEko HIESa eta Sexu Transmisioko Infekzioen Planak emandako datuen arabera, 2021ean zortzi **HIES** kasu diagnostikatu ziren, guztiak gizonetan. Sei kasutan identifikatutako transmisio mekanismoa sexu-harremanak izan ziren, lau homosexual eta bi heterosexual; batek drogak bide parenteraletik erabiltzen zituen, eta bestearen transmisio-bidea ez da ezagutzen. HIESagatik bi hildako izan ziren.


Bizkaian **GIB**aren 61 infekzio berri diagnostikatu ziren, % 84 gizonak izanik. Batez besteko adina 39 urtekoa izan zen gizonetan eta 37 emakumeetan. Kutsatutako pertsonen % 38 atzerritarrak ziren. Gizonen artean, kasuen % 67an transmisio homosexuala gertatu zen, eta emakumeen artean, kasuen % 90an transmisio heterosexuala.

Bektoreek transmititutako gaixotasunak

2021ean Bizkaian ez zen inolako **denge** kasurik deklaratu, ezta **Chikungunya** birusak eragindako gaixotasunik ere. Europan, 2021ean denge kasu autoktono bakarra deklaratu zen Frantziako Toulon hirian, eta ez da Chikungunya birusaren transmisio autoktonorik antzeman 2017tik.

Paludismoaren hamaika kasu erregistratu ziren, zazpi gizon eta lau emakume, 35 eta 58 urte bitarteko adin-tartearekin. Kasu guztietan *Plasmodium falciparum* identifikatu zen.

Bertako biztanleri eta atzerritarren Paludismoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Iturria: ABG

Kaltetu guztiak jatorriz Mendebaldeko Afrikakoak ziren, eta aldi baterako bidaiatu zuten beren jatorrizko lekura. Inork ez zuen kimioprofilaxi osoa egin.

Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak


2021an **Q sukarrak** gorakada nabarmena izan zuen. 115 kasu erregistratu ziren (tasa: 10,05/100 000). Aurreko urteekin alderatuta emandako hazkundera Baltzolako kobak bisitatu zuten pertsonen lotutako agerraldi bati zor zaio.

Agerraldi honek 108 pertsonari eragin zien. 2021eko otsailean Q Sukarraren sei kasu aztertu ziren kobazuloetan eskalada egin zuten pertsonen artean. Apirilean jakinarazi zen kasu kopuru handiena. Kasuok Aste Santuko oporrekin batera kobazuloak bisitatu zituzten pertsonen artean eman ziren. Orduan, sarrera itxi zen eta garbiketa- eta desinfekzio-lanak egin ziren. Ondoren, garbiketako langileen eta ingurua zaintzen ari zen ertzain baten artean kasuak agertu ziren. Gaur egun, haitzuloetako sarrerek itxita jarraitzen du.

Bigarren agerraldi bat ere egon zen, hondakinen enpresa bateko lau pertsonari eragin ziena; 2014an eta 2018an ere agerraldiak egon ziren enpresa berean, baina kasu honetan eraso-tasa txikiagoa izan zen.

Sexu-arrazoia (G/E) 1,8 izan zen, eta 25-44 urteko adin-taldea izan zen kaltetuena. Barrualde-Galdakao ESIan tasa altuagoa antzeman zen, 14,33/100 000

Grafikoan ikusten den moduan, Q sukarraren banaketan urtaroei eragin handia dute oraindik ere.



Iturria: IMS eta ABG


Agerraldi batetara lotu gabeko 67 urteko emakume baten **leptospirosi** kasu isolatu bat deklaratu zen.

Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak

Haemophilus Influenzae-ren gaixotasun inbaditzaile sei kasu erregistratu ziren, denak hirurogei urtetik gorakoak, heriotza bat eman zelarik. Sei anduietatik bi kapsulatuak ziren, bat B serotaldea eta bestea F serotaldea. Isolamenduak odolean eta likido pleuralean egin ziren, eta DNA detektatu zen likido zefalorrakideoan.

Gaixotasun meningokozikoaren lau kasu deklaratu ziren, hiru B serotalde kasu eta bat ezin izan zitzaion serotaldea esleitu. Adin-tartea zazpi hilabetetik 76 urtera bitartekoa izan zen, eta ez zen hildakorik egon.


Gaixotasun meningokozikoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Iturria: ABG

***Streptococcus pneumoniae*-ren gaixotasun inbaditzaileak**, 79 kasurekin, 100 000 biztanleko 6,91 kasuko tasa izan zuen. Gaixoen batezbesteko adina 54 urtekoa zen, jaioberri eta 95 urte bitarteko adin tartearekin. Bost urtetik beherako haurretan hamaika kasu erregistratu ziren, euren adinerako behar bezala txertatuta zeudenak. Horietatik lau kasutan serotipoa aztertu zen eta bik egutegiko txertoak duen serotipoa zuten.

Gaixotasun neumokoziko inbaditzailearen urteko bilakaera bost urte baino gutxiagoko haurretan, Bizkaia 2012-2021




Iturria: IMS eta ABG

Helduen % 76k txertoa jartzeko gomendio zuen, 64 urte baino gehiagokoak zirelako edo arrisku faktoreren bat zutelako. Horietatik, % 33ak zuen txertoa jarrita.

Parotiditis-intzidentzia dezente jaitsi da, 2021ean tasa 0,61 kasu 100 000 biztanleko (7 kasu) izan zelarik.

Parotiditisaren bilakaera lau-asteka, Bizkaia 2007-2020




Iturria: ABG

Pandemia dela eta **paralisi flazido akutuaren** (PFA) kasuen zaintza aktiboa eten zen eta 2021eko azaroan berriro ekin zitzaion zaintza horri. 2020an, alden erregistroan (DGOM) PFA kasu bat identifikatu zen, 30 hilabetekoa, eta behin betiko diagnostikoa Guillain-Barré sindromea izan zen. 2021ean ez zen kasurik erregistratu.

2021ean, Europa osoan behera egin zuen nabarmen **elgorri**-kasuen intzidentziak. Estatu mailan 25 kasu susmagarri ikertu ziren, eta horietatik hiru baieztatu ziren. Bizkaian ez zen kasurik deklaratu.

Elgorriaren urteko bilakaera adin pediatrikoan* eta helduetan, Bizkaia 2002-2021




* 14 urte arte

Iturria: ABG

2015ean izandako epidemia gailurraren ondoren, **kukutxeztula** jaisten joan da, eta 2021ean ez zen kasurik erregistratu.

Kukutxeztularen urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021




2021ean ez zen **barizela** kasurik deklaratu.

Bestelakoak

A taldeko estreptokokoagatiko gaixotasun inbaditzailearen hamaika kasu deklaratu ziren (0,96/100 000), 32 eta 85 urte bitarteko adin-tartean. 65 urtetik gorako bi pertsona hil ziren.

A taldeko estreptokokoak eragindako gaixotasun inbaditzailearen urteko bilakaera, Bizkaia 2012-2021



Taulan 1993-2021 urteetan EAEko **gizakietan gertatu ziren entzefalopatia esponjiforme transmitigarrien** kasuak erakusten dira. Noizbehinkako kasuen batezbesteko adina 70 urtekoa da eta % 51 gizonak dira; familiako kasuen artean, batezbesteko adina 54 urtekoa da eta gizonak % 63 dira.

Entzefalopatia transmitigarriak, EAE 1993-2021

	ARAVA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
CJG posiblea	1	2	8	11
CJG probablea	5	6	20	31
CJG behin-betikoa	9	32	46	87
Noizbehinkakoak guztira	15	40	74	129
Noizbehinkako tasa/100 000	1,7	2,0	2,1	2,1
Familiako CJG	1	3	0	4
Familia insomnio hilgarria	20	2	8	30
S. Gerstmann-SS	0	3	0	3

Sarna edo **eskabiosia** ez da nahitaez deklaratu beharreko gaixotasun bat; hala ere, kasuen multzokatzeak jakinarazi egin behar dira. 2021ean hogeitaz agerraldi izan ziren: bederatziz gazte/adingabeen harrera-zentroetan, lau pertsona nagusien zentroetan, lau familia eremuan eta hiru ikastetxeetan.

2017. urteaz geroztik, gaixotasun horrek biztanleria orokorrean duen intzidentzia etengabe hazi dela ikusi da (OBIEren datuak); ziurrenik, jakinarazitako kasuen infradeklarazioa egongo da jakinarazitako kasuen taldekatzeetan, batez ere familia-eremuan.

Intzidentzia


2020ko martxoaren 2an eman zen lehen COVID-19 diagnostikotik 2021eko abenduaren 31ra arte, 193 384 IAPD positibo (PCR/Ag) erregistratu dira Bizkaian bizi diren pertsonetan. Epealdiaren amaieran, intzidentzia-tasa metatua (ITM) 16,9 kasu ehun biztanleko da, 17,0 gizonetan eta 16,7 emakumeetan. Infekzio guztietatik 3378 (% 1,7) SARS-CoV-2ak eragindako berrinfekzioak izan dira.

Lehen uhin pandemikoan, 2020ko martxoaren 2tik maiatzaren 10era, 7600 kasu baieztatu ziren, tasarik altuena 13. astean erregistratu zelarik (161,4/100 000). Maiatzaren 11tik uztailaren 12ra, intzidentzia zifra baxuetan mantendu zen, asteko tasak 100.000ko 10etik beherakoak izanik (tarte: 1,2-9,8); epe horretan 445 kasu erregistratu ziren. 29. astean (2020ko uztailaren 13tik 19ra), joera-aldaketa bat ikusi zen, eta intzidentzia handiko aldi bat hasi zen, sei uhinekin (gailurrak 2020ko 35. eta 45. asteetan eta 2021eko 4., 16. eta 29. asteetan), seigarren uhina 2021. urtearen amaieran igoera-aldian zegoelarik (5889,7/100.000ko intzidentzia metatua 52. astean). Arnas bidez transmititzen diren gaixotasunetan gertatzen den bezala, intzidentzia-gailurrak kontaktu sozial handiagoko garaiekin lotzen dira.

Alfa aldaeraren lehen diagnostikoak 2020ko abenduan baieztatu ziren, bere hedapen maximoa (% 93) 2021eko maiatzean izan zelarik. Delta aldaera 2021eko maiatzaren amaieran identifikatu zen lehen aldiz, eta maximora iritsi zen (% 98) azaroko lehen astean. Omikron aldaera 2021eko abenduko lehen astean detektatu zen, eta urtearen amaieran % 80ra iritsi zen.

Txertaketa 2020ko azken astean hasi zen adinekoen egoitzetan, eta azterturiko aldiaren amaieran, honen estaldura % 91,6koa zen hamabi urtetik gorako biztanleen artean.

**Kasu-kopurua (IAPD positiboa) diagnostiko-astearen, zirkulatzen duten aldagaien %aren eta txerto-estalduraren arabera. (asteko ITM*/100 000).
Bizkaia. 2020-2021**



Iturria: Osakidetzako Mikrobiologia Laborategiak eta EAEko laborategi pribatuak eta ABG (Aitortu Beharreko Gaixotasunak)

2020-2021ean metatutako intzidentzia-tasa handiena Bilbo-Basurtu ESlak izan zuen (% 18), bai gizonetan, bai emakumeetan, eta tasarik txikiena Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESlko gizon-emakumeena izan zen (% 15).

Baieztatutako COVID-19aren kasu kopurua eta intzidentzia-tasa (100 biztanleko), sexuaren eta bizileku ESlaren arabera. Bizkaia. 2020-2021


	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kasuak	Tasa (100eko)	Kasuak	Tasa (100eko)	Kasuak	Tasa (100eko)
Barakaldo-Sestao	9312	15,5	10.116	15,5	19.428	15,4
Barrualde-Galdakao	22.714	16,8	23.316	16,7	46.030	16,7
Bilbo-Basurtu	30.667	18,8	32.992	18,0	63.659	18,3
Ezkerr.-Enk.-Gurutz.	11.666	14,9	12.577	15,1	24.243	14,9
Uribe	17.802	16,9	18.543	16,4	36.345	16,7
Bizkaia	94.003	17,1	99.377	16,7	193.380	16,9

Barrualde ESlko datuek ez dituzte barne hartzen Bizkaikoak ez diren udalerririk.


Denboran zehar bilakaera antzekoa izan da ESI guztietan eta bi sexuetan, 2021eko azken hiruhilekoan izan ezik; orduan intzidentzia-tasa altuenak Barrualde-Galdakako ESlan eman ziren. ESI honetan, 2021eko azken hiruhilekoaren bilakaera Gipuzkoaren antzekoa izan zen, zeinak, lurraldekako tasarik altuena izan baitzuen.

Intzidentzia-tasa (100 000 biztanleko) pazientearen diagnostiko astearen, sexuaren eta ESlaren arabera. Bizkaia. 2020-2021


Bizkaia




Barakaldo-Sestao ESI




Barrualde-Galdakao ESI




Bilbo-Basurtu ESI



Ezkerr. Enkart. Gurutz. ESI




Uribe ESI




Maila sozioekonomikoa: 2020an eta 2021ean diagnostikatutako pazienteen % 94 eta % 92aren gabezia-indizea dugu, hurrenez hurren. Gabezia-indizearen eta COVID-19aren intzidentziaren arteko erlazioa esanguratsua da bi sexuetan. Pandemiaren lehen urtean, intzidentzia tasa estandarizatu nabarmen handiagoa izan zen III., IV. eta V. mailetan (pobreagoak) I. eta II. mailetan baino (aberatsagoak). 2021ean, alde hori desagertu egiten da.

COVID-19 gaixotasunaren intzidentzia tasa estandarizatu (ITE), gabezia-indizearen eta sexuaren arabera, Bizkaia

2020ko diagnostikoak



2021eko diagnostikoak



Tasak 100 000 biztanleko. Erreferentziako biztanleria: 2013ko Europako biztanleria

COVID 19. Kasu kopurua, tasak (100 000 biztanleko) eta intzidentzia-estandarizatuaren arrazoa, gabezia-indizearen, sexuaren eta diagnostiko-aldiaren arabera. Bizkaia. 2020 eta 2021

	Gabezia Indizea	Gizonak					Emakumeak				
		Kasuak	TG	ITE	IEA	% 95 KT	Kasuak	TG	ITE	IEA	% 95 KT
2020	I (aberatsena)	5141	4295,23	4343,09	1,00		5949	4444,33	4360,44	1,00	
	II	4089	4246,90	4361,79	1,00	1,00	4587	4426,84	4378,39	1,00	1,00
	III	4493	4437,88	4567,93	1,05	1,05	5088	4694,59	4738,56	1,09	1,08
	IV	4769	4474,49	4568,50	1,05	1,05	5345	4674,65	4804,07	1,10	1,10
	V (txiroena)	5887	4724,30	4847,30	1,12	1,11	6715	5132,85	5256,65	1,206	1,20
	GI gabe	1523 (5,9%)					1693 (5,8%)				
2021	I (aberatsena)	1520	12702,71	13103,95	1,00		4596	3433,54	3588,96	1,00	
	II	1077	11191,08	11642,52	0,89	0,89	3577	3452,10	3607,64	0,91	0,91
	III	1170	11559,43	12059,76	0,92	0,92	4117	3798,67	4003,18	0,96	0,95
	IV	1141	10712,88	11305,75	0,86	0,86	4426	3870,91	4158,16	0,91	0,91
	V (txiroena)	1349	10825,69	11332,10	0,86	0,86	5541	4235,46	4523,18	0,93	0,94
	GI gabe	5521(8,1%)					5553 (7,9%)				

Maila sozioekonomikoaren eragina kalkulatzeko, MEDEA Gabezia Indize (GI) sozioekonomikoa erabili da, bizileku-eremuaren arabera eguneratua, 2011eko erroldaren arabera.


Larritasuna

Gaixotasun larria, gaixoaren ospitaleratzea eta/edo heriotza dakarren infekzioa da. COVID-19 sintomatologiak eragindako ospitaleratzeak eta beste arrazoi batengatik ospitaleratu egonda, kutsatu eta COVID-19aren sintomak garatzen dituzten pazienteen ospitaleratzeak erregistratzen dira; PCR+a izanda, beste arrazoi batzuegatik eta COVID-19 sintomatologiarik gabe ospitaleratutakoak baztertu egiten dira. COVID-19aren ondorioz hildakoak erregistratzen dira, sintomarik gabeko infekzioa duten pertsonen heriotzak, gaixotasuna sendatu ondoren hildakoak edo COVID-19arekin lotuta ez dagoen kausagatik hil direnak alde batera utzita. Historia klinikoan informaziorik ez dagoenean, diagnostikoa eta heriotza denboran hurbil badaude, heriotza COVID-19ak eragindako izan dela onartzen da.

Ospitaleko erikortasuna

2021eko abenduaren 31ra arte, Bizkaian bizi ziren 13 092 paziente, baieztatutako kasu guztien % 7 (gizonen % 8 gizonak eta emakumeen % 6) COVID-19agatik ospitaleratu ziren. % 56 (7368) 64 urteko batez besteko adina zuten gizonak ziren, eta % 44a (5724) 67 urteko batez besteko adina zuten emakumeak. Ospitaleratutakoan % 9,5 (gizonen % 12 eta emakumeen % 7) ZIUra eraman behar izan zituzten, eta unitate horren barruan, % 61ak aireztapen mekaniko inbaditzailea behar izan zuen.

Solairuko ospitaleratze eta ZIU sartutakoaren kopurua ospitaleratze-astearen arabera 2020-2021ean. Bizkaia




Azken-aurreko intzidentzia-uhinean (ekainaren 28tik urriaren 3ra) ospitaleratze-kopurua aurrekoetan baino txikiagoa izan zen, baita ospitaleratutako kasuen ehunekoa ere (% 4,2). Azken uhinean, urtea amaitu arte, infekzioa izan eta ospitaleratu ziren pertsonen ehunekoa are eta txikiagoa izan zen (% 1,7). Hau, txerto-estaldura maila altuarekin, eragindakoen artean gazteen proportzio handiagoarekin eta, ziurrenik, intzidentzia handieneko azken aldiaren Omikron aldaera agertzearekin lotuta egon daiteke.


Ospitaleratu diren pazienteen ehunekoa handitu egiten da adinarekin, eta handiagoa da gizonen artean, adin-talde guztietan.

Bizkaia (2020-2021)

Ospitaleratutako pazienteen %, adinaren eta sexuaren arabera




Ospitaleratuak kopurua eta tasa (100 000 biztanleko), adinaren eta sexuaren arabera




Solairuko ospitaleratzearen iraupenak tarte oso zabala izan zen, zero egunetik (egun berean ospitaleratzea eta alta) 370 egunera arte; 64 ospitaleratze egon ziren 90 egunetik gorako egonaldiarekin. Egondia luzatu egiten da adinean aurrera egin ahala. Ospitaleratzeen % 53an egondia zazpi egun edo gutxiagokoa izan zen, eta % 25ean 23tik gorakoa. ZIUko egondia luzeagoa izan zen, % 50ak hamabi egun edo gutxiagoko egondia izan zuen eta % 25ak 23tik gorakoa.

Solairuko egondia, egun kopuruaren eta adin-taldearen arabera. Bizkaia. 2020-2021

Maiztasuna %



Ospitaleratze kopurua



Ospitaleratutako pazienteen % 97ren arrisku-faktoreei buruzko informazioa dago. Kasuen % 16an ez da arrisku-faktorerik erregistratu, eta % 81ean gutxienez bat ageri da. Arrisku-faktore ohikoenak gaixotasun kardiobaskularra (hipertentsioa barne), DM, biriketako gaixotasun kronikoa eta gaixotasun neurologikoa (dementziak barne) izan ziren. Obesitatea emakumeen % 13ak eta gizonen % 10ak zuen. Genero-aldea hurrengo taulan islatzen da.

COVID-19agatik ospitaleratutako en arrisku-faktoreak. 2020-2021. Bizkaia


ARRISKU-FAKTOREAK	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
AF erregistratutako kasuak	5896	80.0	4701	82.2	10597	80.9
Diabetes mellitusa	1535	20,8	1015	17,7	2550	19,5
G. kardiobaskularra (hipertentsioa barne)	3858	52,4	2742	47,9	6600	50,4
Biriketako gaixotasun kronika	1565	21,2	995	17,4	2560	19,6
Gaixot. neurologikoa (dementzia barne)	827	11,2	915	16,0	1742	13,3
Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa	694	9,4	476	8,3	1170	8,9
Minbizia	386	5,2	242	4,2	628	4,8
Obesitatea	768	10,4	753	13,2	1521	11,6
Gaixotasun hepatico kronikoa	232	3,1	92	1,6	324	2,5
Haurdunaldia			63	1,1	63	0,5
Erdiondoa			7	0,1	7	0,1
Immunoeskasia	211	2,9	202	3,5	413	3,2
Beste arrisku-faktore batzuk	414	5,6	411	7,2	825	6,3
Adina, 60 urte edo gehiago, beste AF gabe	618	8,4	553	9,7	1171	8,9
Arrisku-faktorerik gabe (<60 urte)	1243	16,9	840	14,7	2083	15,9
Informazioarik gabe	229	3,1	183	3,2	412	3,1
Ospitaleratze guztiak	7368		5724		13.092	

Iturria: ABG

Hilkortasuna

Pandemian zehar, abenduaren 31ra arte diagnostikatutako pazienteen artean, COVID-19ak eragindako 2367 heriotza erregistratu dira Bizkaian bizi diren pertsonen artean. % 53 (1264) 80 urteko batez besteko adina zuten gizonak ziren, eta % 47a emakumeak, 85 urteko batez besteko adinarekin. Hildakoen % 96ak hirurogei urte edo gehiago zituen. Hildakoen kopuruak eta hilgarritasunak behera egin dute adin-talde horretan 2021. urtearen amaieran, ziurrenik txertoaren estaldura maila handiak eraginda.

59 urtetik gorako hildakoen kopurua (IAPD positiboa), heriotza-dataren (14 egun) eta sexuaren arabera. Hilgarritasuna (%) 59 urtetik gorakoetan. 2020-2021.




Iturria: ABG; Hileta-osasuna, EAEko hilkortasunaren erregistroa


Aztertutako aldi osoan, 50 urtetik beherako 27 pertsona hil ziren, heriotza-tasa metatua 100 000 biztanleko 206,4koa izan zelarik (229,1 gizonetan eta 185,1 emakumeetan). Hilgarritasun globala % 1,2koa izan zen (% 1,3 gizonetan eta % 1,1 emakumeetan). Bai hilkortasuna bai hilgarritasuna, handitu egiten dira adinarekin, eta adin-talde guztietan izan ziren altuagoak gizonetan emakumeetan baino.

Bizkaia. (2020ko martxoaren 1a - 2021eko abenduaren 31)

Hilgarritasuna (%)



Hildako kopurua eta hilkortasun tasa (100 000ko)



Iturria: ABG; Hileta-osasuna, EAEko hilkortasunaren erregistroa

Hildako guztietatik bederatzi kasutan bakarrik ez da arrisku-faktorerik identifikatu hirurogei urtetik beherakoak izanik. % 3,5ak arrisku-faktorerik ez eta hirurogei urte edo gehiago zituzten eta gainerakoek, AF bat zuten gutxienez. Hiru AF ohikoenak gaixotasun kardiobaskularra (hipertentsioa barne), gaixotasun neurologikoa (dementziak barne) eta diabetesa dira.


COVID-19agatik hildako kasuen arrisku-faktoreak. 2020-2021. Bizkaia

ARRISKU-FAKTOREAK	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
AF erregistratutako kasuak	1256	99,4	1102	99,9	2358	99,6
Diabetes mellitusa	399	31,6	301	27,3	700	29,6
G. kardiobaskularra (hipertentsioa barne)	1002	79,3	856	77,6	1858	78,5
Biriketako gaixotasun kronikoa	383	30,3	219	19,9	602	25,4
Gaixot. neurologikoa (dementia barne)	414	32,8	519	47,1	933	39,4
Giltzurrunetako gaixotasun kronikoa	287	22,7	239	21,7	526	22,2
Minbizia	127	10,0	60	5,4	187	7,9
Obesitatea	68	5,4	92	8,3	160	6,8
Gaixotasun hepatico kronikoa	63	5,0	23	2,1	86	3,6
Haurdunaldia			1	0,1	1	0
Erdiondoa				0,0	0	0
Immunoeskasia	54	4,3	33	3,0	87	3,7
Adina, 60 urte edo gehiago, beste AF gabe	58	4,6	24	2,2	82	3,5
Arrisku-faktorerik gabe (<60 urte)	8	0,6	1	0,1	9	0,4
Hildakoak guztira	126		1103		2367	


Hurrengo grafikoan, Bizkaiko biztanleriaren piramidea irudikatzen da, bost urteko adin-taldean arabera, eta, gainjarrita, COVID-19ak infektatutako, ospitaleratutako eta hildako gizon eta emakumeen ehunekoa. Bizkaian bizi diren pertsonen % 30ak hirurogei urte edo gehiago ditu, eta talde horretan erregistratu dira infekzioen % 18,6, ospitaleratzeen % 62,3 eta heriotzen % 96.

Baieztatutako COVID-19 kasuen banaketa (%) adinaren (bost urteko taldeak) eta sexuaren arabera, eta Bizkaiko biztanleriaren banaketa (%), 2020-2021


Infekzioen %




Ospitaleratuen %



ZIUn sartutako %




Hildakoen %



Hurrengo grafikoak 2021ean EAEn ibili diren aldaera garrantzitsuenen diagnostiko-sekuentzia adierazten du.

Aldaera bakoitzaren ehunekoa, aste diagnostikoaren arabera. EAE 2021



Iturria: Osakidetzaiko Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuak.

Kasuen banaketa sexuaren eta adinaren arabera, diagnostiko-dataren, solairuko eta ZIuko ospitaleratzearen eta pandemiaren aldi bakoitzean hildakoen arabera. Bizkaia. 10. astea/2020 - 52.astea/2021 (2020ko martxoaren 1a - 2021eko abenduaren 31)

KASUAK


OSPITALERATUAK



Kasuen banaketa sexuaren eta adinaren arabera, diagnostiko-dataren, solairuko eta ZIuko ospitaleratzearen eta pandemiaren aldi bakoitzean hildakoen arabera. Bizkaia, 10. astea/2020 - 52.astea/2021 (2020ko martxoaren 1a - 2021eko abenduaren 31)

ZIUn SARTUAK

HILDAKOAK



COVID-19agatiko intzidentzia metatua, ospitaleratzeak, hilgarritasuna eta heriotza-tasa, diagnostiko-aldiaren eta sexuaren arabera. Bizkaia (2020ko martxoaren 2a - 2021eko abenduaren 31a)

Aztertutako aldia	2020				2021				GUZTIRA 2020-2021
	2/3-10/5 10-19 ast.	13/7-4/10 29-40 ast.	5/10-27/12 41-52 ast.	8/12-7/3 53-9 as.	8/3-27/6 10-25 ast.	28/6-3/10 26-39 ast.	4/10-1/12 40-52 ast.		
Iraupena (asteak)	10	12	12	10	16	15	13		
KASU KOPURUA	7600	17.989	28.375	24.715	25.164	30.219	58.877	193.384	
Gizonak	3081	8734	13.495	11.961	12.681	15.606	28.268	94.004	
Emakumeak	4519	9255	14.880	12.754	12.483	14.613	30.609	99.380	
ITM (100 000ko)	661,42	1565,56	2469,44	2160,17	2199,41	2641,24	5146,0	16866,10	
Gizonak	557,3	1579,8	2440,9	2172,6	2303,4	2834,7	5134,6	17038,8	
Emakumeak	758,0	1552,4	2495,9	2148,6	2103,0	2461,8	5156,6	16705,9	
Tasen arrazoia G/E	0,7	1	1	1	1,1	1,2	1	1	
Adina	62	41	43	42	39	33	38	40	
Gizonak	62	40	42	41	38	32	37	39	
Emakumeak	62	42	45	43	40	34	38	41	
OSPITALERATZE KOP.	3227	1190	2093	2056	2221	1264	994	13092	
Gizonak	1775	639	1184	1182	1286	705	574	7368	
Emakumeak	1452	551	909	874	935	559	420	5724	
Ospitalera. tasa (100 000ko)	280,8	103,6	182,2	179,7	194,1	110,5	86,9	1141,8	
Gizonak	321,1	115,6	214,2	214,7	233,6	128,1	104,3	1335,5	
Emakumeak	243,6	92,4	152,5	147,2	157,5	94,2	70,8	962,2	
Tasen arrazoia G/E	1,3	1,3	1,4	1,5	1,5	1,4	1,5	1,4	
Adina	68	67	68	66	60	57	66	65	
Gizonak	67	64	67	65	60	56	65	64	
Emakumeak	70	69	70	69	61	59	66	67	
Ospitalera. kasu %	42,5	6,6	7,4	8,3	8,8	4,2	1,7	6,8	
Gizonak	57,6	7,3	8,8	9,9	10,1	4,5	2,0	7,8	
Emakumeak	32,1	6,0	6,1	6,9	7,5	3,8	1,4	5,8	
ZIUn sartutakoen kop.	245	97	208	217	214	122	134	1239	
Gizonak	179	69	144	158	146	71	86	854	
Emakumeak	66	28	64	59	68	51	48	385	
Tasen arrazoia G/E	2,7	2,5	2,3	2,7	2,1	1,4	1,8	2,2	
ZIUn sartzen ospitaleratu %	7,6	8,2	9,9	10,6	9,6	9,7	13,5	9,5	
Gizonak	10,1	10,8	12,2	13,4	11,4	10,1	15,0	11,6	
Emakumeak	4,5	5,1	7,0	6,8	7,3	9,1	11,4	6,7	
AMdun ospitalera. kop.	187	46	106	130	130	122	134	762	
Gizonak	135	31	75	100	76	45	67	529	
Emakumeak	52	15	31	30	46	30	29	233	
AMdun ZIuko paziente %	76,3	47,4	51,0	59,9	59,9	57,0	71,6	61,1	
Gizonak	75,4	44,9	52,1	63,3	52,1	63,4	77,9	61,9	
Emakumeak	78,8	53,6	48,4	50,8	67,6	58,8	60,4	60,5	
HILDAKO KOPURUA	784	233	412	385	183	189	174	2367	
Gizonak	392	117	225	214	106	101	103	1264	
Emakumeak	392	116	187	171	77	88	71	1103	
Hilkortasun tasa (100 000ko)	68,2	20,3	35,9	33,7	16,0	16,5	15,2	206,4	
Gizonak	70,9	21,2	40,7	38,9	19,3	18,3	18,7	229,1	
Emakumeak	65,8	19,5	31,4	28,8	13,0	14,8	12,0	185,4	
Tasen arrazoia G/E	1,1	1,1	1,3	1,3	1,5	1,2	1,6	1,2	
Hilgarritasun tasa (%)	10,3	1,3	1,5	1,6	0,7	0,6	0,3	1,2	
Gizonak	12,7	1,3	1,7	1,8	0,8	0,6	0,4	1,3	
Emakumeak	8,7	1,3	1,3	1,3	0,6	0,6	0,2	1,1	
Adina	84	84	83	83	79	81	78	82	
Gizonak	81	82	81	80	77	80	76	80	
Emakumeak	86	86	85	86	81	83	81	85	

Atal honetan GNS-10eko gaixotasun talde handietako eritasun kroniko nagusien inguruko datu deskribatzaile garrantzitsuenak aurkezten dira.


Gaixotasun talde bakoitzean, lehenengo gaixotasun azpitalde bakoitzaren erikortasun eta hilkortasun proportzionalak aurkezten dira (2020 urtea), eta aipagarria izanez gero, baita ESI bakoitzeko edo denboran zeharreko (2001tik 2020ra) tasen banaketa ere. Ondoren, talde bakoitzeko gaixotasun nagusienak deskribatzen dira, lehenik prebalentzia adierazleak eta intzidentzia (edo ospitaleratze-maiztasuna) eta hilkortasun tasa orokorrak aurkeztuz. Jarraian, adierazleak deskribatzen dira, pertsonaren (sexua, adin-taldea eta gabezia sozioekonomikoaren indizea), lekuaren (bizilekua, ESIka) eta denboraren arabera (2001tik 2020ra).

Horretaz gain, V. eranskinean Minbizi Erregistroan jasotako minbizi gaizto guztien tasa gordinak eta estandarizatuak aurkezten dira, VI. eranskinean gaixotasun talde handien ospitale-erikortasuna, eta VII. eranskinean hilkortasunari buruzko datuak.

Minbizia (GNS 10: C00-C99; D45-D47)

Finkaturik dauden azken datuak 2016. urtekoak dira. Urte horretan zehar, 7279 tumore gaizto erregistratu ziren Bizkaiko biztanleen artean, 4207 (% 58) gizonetan eta 3072 (% 42) emakumeetan. Hauek 766,81 eta 520,49/100 000-ko intzidentzia-tasa gordina adierazten dute gizon eta emakumeetan, hurrenez hurren. V. eranskinean tumore gaizto guztiak sexu eta kokapenaren arabera erakusten dira. Hurrengo grafikoak maiztasun-erlatiboa irudikatzen du, sexu eta kokapenaren arabera.


Tumore gaiztoen kopurua lokalizazio ohikoenetan, sexu bakoitzean.
Bizkaia 2016



Kokapena GNS-10aren arabera. Aho-faringea: C00-06;C09-C14; Hestegorria: C15; Urdaila: C16; Kolon-ondestea: C18-C20; Gibela: C22; Pankrea: C25; Laringea: C32; Birikak: C33-C34; Larruazaleko melanoma: C44 eta M8720-8790/3; Bularra: C50; Umetokia: C54; Obulutegia: C56; Prostata: C61; Obulutegia: C64; Maskuria: C67; NSZ: C71; Tiroidea: C73; Ez Hodgkin linfoma (EHL): M9590-9596/3, 9670-9729/3; 9761-9764/3, 9820-9837/3

Helduetan, minbiziaren intzidentziak gora egiten du bi sexuetan adinean aurrera egin ahala, eta beti da handiagoa gizonetako 25 eta 54 urte bitarteko taldean izan ezik.

Kasu kopurua eta intzidentzia-tasak (100 000 biztanleko), adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2016. (20 urtetik beherakoetan: 2000-2016). Bizkaia




Iturria: RCEME

2016. urtean 25 tumore gaizto erregistratu ziren 0-14 urteko Bizkaiko haurretan, hau da, milioiko 336,5eko tasa. 15-19 urteko biztanlerian zazpi tumore gaizto erregistratu ziren, 316,5 kasu milioiko.


Haur eta gazteen minbizia (19 urte bitarte). Diagnostiko-talde nagusien maiztasun erlatiboa, adin-taldearen arabera. Bizkaia, 2000-2016

Kasu-kopurua sexuaren eta tumore-taldearen arabera *(n=555)




Kasuen %, tumore-talde bakoitzeko


Urtebetetik beherakoak (n=49)




1-4 urte (n=134)




5-9 urte (n=101)



10-14 urte (n=111)



15-19 urte (n=160)




*Diagnostiko taldeak: *Classification of Childhood Cancer Third edition (ICC-3)*

Hurrengo grafikoan, adin-talde eta sexu bakoitzean ohikoenak diren lokalizazioen intzidentzia ikus daiteke.

Maiztasun-erlatiboa (%) kokapen, adin-talde eta sexuaren arabera. Bizkaia 2016


Gizonak

20-49 urte (n=249 kasuak)




Emakumeak


20-49 urte (n=440)




50-69 urte (n=1832)




50-69 urte (n=1255)



70 urte eta gehiago (n=2107)




70 urte eta gehiago (n=1364)



KOM: Kolon-ondesteko minbizia; EHL: Ez Hodgkin linfoma; LMA: Leuzemia Mieloide Akutua; LMK: Leuzemia mieloide kronikoa; SMP: Sindrome mieloproliferatiboa; SMD: Sindrome mielodisplasikoa.
Iturria: RCEME

Bizkaian, minbiziaren intzidentzia ez da EAEkoaren oso bestelakoa. OSIren arabera, intzidentzia esangarriki handiagoa dute Bilbo-Basurtuko gizon eta emakumeek, eta txikiagoa Uribeko gizonen eta Barrualde-Galdakao eta Ezkerralde-Enkarterriko emakumeek.

Kokapen guztietako minbiziaren intzidentzia estandarizatuaren arrazoa, sexuaren eta ESlaren arabera. Bizkaia 2016



Iturria: RCEME

Tumore-lokalizazio guztietan, gizonen artean tasa estandarizatuaren arrazoa, hau da, minbizi izateko arrisku erlatiboa, nabarmen handitzen da pazientearen maila sozioekonomikoa murriztean, II. mailako % 2tik gabezia maila handieneko (Gl. V) % 20eraino. Emakumeen artean ez da lotura hori antzematen.

Lokalizazio zehatzei dagokienez, gizonen artean askoz intzidentzia handiagoa dute maila sozioekonomiko apalenetan, aho-barrunbe-faringe, esofago, urdail, KOM, gibel, laringe, birika, maskuri eta giltzurruneko minbizek. Emakumeen artean, urdaileko, gibelesko, pankreako eta giltzurruneko minbizietan ikusten da lotura hori.

Kontrako efektua, maila sozioekonomiko altuenetan intzidentzia handiena, bi sexuetako azaleko melanoman, bularreko minbizian emakumeetan eta prostatakotan antzematen da. Gainerako kokalekuetan ez da loturarik ikusten.

GIZONAK. Kasu kopurua eta tasen arrazoi estandarizatuak, minbiziaren kokapenaren eta gabezia-indizearen arabera. Bizkaia 2012-2016

GI	Kokapen guztiak				Aho-barrunbea/faringea					Hestegorria					
	Kasuak	ATE	TEA	KT %95	Kasuak	ATE	TEA	KT %95	Kasuak	ATE	TEA	KT %95			
I	4419	762,77	1,00		139	22,95	1,00		59	10,35	1,00				
II	3461	778,55	1,02	1,01	1,03	107	22,84	1,00	0,83	1,19	53	11,91	1,15	0,85	1,56
III	4026	823,95	1,08	1,07	1,09	126	25,28	1,10	0,93	1,30	81	16,61	1,61	1,23	2,10
IV	4631	828,26	1,09	1,07	1,10	149	26,28	1,15	0,97	1,35	76	13,27	1,28	0,97	1,70
V	5670	918,10	1,20	1,19	1,22	215	34,59	1,51	1,30	1,74	101	16,19	1,56	1,21	2,03
	Urdaila				KOM					Gibela					
I	141	24,60	1,00		698	120,59	1,00		151	25,33	1,00				
II	128	28,49	1,16	0,99	1,36	578	130,94	1,09	1,03	1,14	104	23,08	0,91	0,77	1,08
III	182	37,02	1,50	1,30	1,74	700	142,37	1,18	1,13	1,24	143	28,92	1,14	0,98	1,33
IV	196	34,47	1,40	1,21	1,62	813	144,00	1,19	1,14	1,25	154	27,53	1,09	0,93	1,27
V	240	39,76	1,62	1,41	1,85	895	144,32	1,20	1,14	1,25	240	38,14	1,51	1,32	1,72
	Behazuna/behazun-bideak				Pankrea					Laringea					
I	39	7,11	1,00		128	22,81	1,00		97	16,43	1,00				
II	31	7,78	1,09	0,72	1,67	109	24,31	1,07	0,89	1,27	64	13,84	0,84	0,66	1,07
III	36	7,79	1,09	0,72	1,66	121	24,64	1,08	0,91	1,28	84	16,43	1,00	0,80	1,25
IV	33	6,49	0,91	0,59	1,42	135	23,85	1,05	0,88	1,24	121	21,59	1,31	1,08	1,60
V	56	9,04	1,27	0,87	1,85	140	23,40	1,03	0,86	1,22	165	26,77	1,63	1,36	1,95
	Bronkioak eta birika				Larruzaleko melanoma					Prostata					
I	576	98,88	1,00		120	20,39	1,00		956	166,87	1,00				
II	487	109,41	1,11	1,05	1,17	70	14,70	0,72	0,58	0,89	700	162,05	0,97	0,93	1,01
III	569	115,15	1,16	1,10	1,23	56	11,25	0,55	0,44	0,70	725	153,95	0,92	0,89	0,96
IV	704	125,59	1,27	1,21	1,34	74	13,32	0,65	0,52	0,82	852	156,28	0,94	0,90	0,97
V	930	149,84	1,52	1,44	1,59	70	11,08	0,54	0,43	0,69	917	153,24	0,92	0,88	0,96
	Barrabila				Giltzurruna					Gernu-maskuria					
I	32	5,48	1,00		149	24,94	1,00		339	60,36	1,00				
II	28	5,49	1,00	0,60	1,67	125	26,50	1,06	0,90	1,25	258	58,79	0,97	0,89	1,06
III	28	5,34	0,97	0,58	1,63	138	27,91	1,12	0,96	1,31	311	64,06	1,06	0,98	1,15
IV	20	3,68	0,67	0,37	1,20	165	28,65	1,15	0,99	1,34	343	61,80	1,02	0,94	1,11
V	36	5,21	0,95	0,58	1,57	197	31,28	1,25	1,08	1,45	483	77,08	1,28	1,18	1,38
	NSZ				Tiroidea										
I	70	11,72	1,00		35	5,38	1,00								
II	55	11,52	0,98	0,73	1,32	22	4,19	0,78	0,45	1,36					
III	57	10,87	0,93	0,69	1,24	20	3,65	0,68	0,38	1,21					
IV	54	9,53	0,81	0,60	1,10	36	6,10	1,13	0,71	1,83					
V	78	12,85	1,10	0,83	1,44	49	7,62	1,42	0,92	2,18					

GI: Gabezia-indizea: I (aberatsena) / V (txiroena). TEA: adinaren arabera estandarizatutako tasen arrazoia

EMAKUMEAK. Kasu kopurua eta tasen arrazoi estandarizatua, minbiziaren kokapenaren eta gabezia-indizearen arabera. Bizkaia 2012-2016


GI	Kokapen guztiak					Aho-barrunbea/faringea					Hestegorria				
	Kasuak	ATE	TEA	KT %95		Kasuak	ATE	TEA	KT %95		Kasuak	ATE	TEA	KT %95	
I	3505	452,40	1,00			60	7,62	1,00			25	2,95	1,00		
II	2564	438,07	0,97	0,95	0,99	38	6,55	0,86	0,58	1,28	12	1,89	0,64	0,26	1,56
III	2842	452,99	1,00	0,98	1,02	51	8,15	1,07	0,74	1,54	15	2,22	0,75	0,33	1,74
IV	3165	444,99	0,98	0,97	1,00	49	7,12	0,93	0,64	1,37	12	1,71	0,58	0,23	1,45
V	3540	447,45	0,99	0,97	1,01	45	5,80	0,76	0,51	1,14	20	2,49	0,85	0,39	1,85
	Urdaila					KOM					Gibela				
I	102	12,36	1,00			505	63,88	1,00			42	5,31	1,00		
II	74	12,14	0,98	0,75	1,28	380	63,84	1,00	0,93	1,08	32	5,13	0,97	0,59	1,60
III	77	11,53	0,93	0,72	1,22	400	61,43	0,96	0,89	1,04	44	6,72	1,27	0,81	1,98
IV	127	16,27	1,32	1,05	1,65	484	64,25	1,01	0,93	1,08	68	8,56	1,61	1,08	2,40
V	129	14,97	1,21	0,96	1,53	514	61,60	0,96	0,89	1,04	69	7,56	1,43	0,94	2,15
	Behazuna/behazun-bideak					Pankrea					Bronkioak eta birika				
I	27	3,14	1,00			93	11,45	1,00			276	35,94	1,00		
II	35	5,71	1,82	1,02	3,24	90	14,92	1,30	1,01	1,68	171	30,40	0,85	0,75	0,96
III	45	6,33	2,01	1,17	3,47	102	15,15	1,32	1,03	1,69	183	29,88	0,83	0,73	0,94
IV	44	5,27	1,68	0,95	2,97	128	16,70	1,46	1,15	1,84	177	25,52	0,71	0,62	0,81
V	47	5,01	1,60	0,90	2,84	126	14,31	1,25	0,98	1,59	225	30,18	0,84	0,74	0,95
	Larruzaleko melanoma					Bularra					Umetoki lepoa				
I	125	16,55	1,00			999	130,54	1,00			52	7,04	1,00		
II	84	14,43	0,87	0,70	1,09	687	118,02	0,90	0,86	0,95	36	6,05	0,86	0,56	1,32
III	69	11,44	0,69	0,54	0,88	758	124,60	0,95	0,91	1,00	44	7,32	1,04	0,70	1,55
IV	80	11,99	0,72	0,57	0,92	824	122,19	0,94	0,89	0,98	44	6,70	0,95	0,64	1,43
V	75	9,87	0,60	0,46	0,76	884	117,32	0,90	0,86	0,94	60	8,29	1,18	0,82	1,70
	Umetoki-gorputza					Obarioak eta umetoki-erans.					Giltzurruna				
I	171	22,51	1,00			135	17,57	1,00			58	7,40	1,00		
II	137	24,03	1,07	0,90	1,26	93	16,26	0,93	0,75	1,14	60	9,87	1,33	0,94	1,89
III	173	29,21	1,30	1,11	1,51	86	14,63	0,83	0,67	1,03	66	10,66	1,44	1,03	2,01
IV	168	24,78	1,10	0,94	1,29	113	16,48	0,94	0,77	1,15	64	9,03	1,22	0,86	1,73
V	187	25,10	1,12	0,95	1,30	100	13,13	0,75	0,60	0,93	85	10,61	1,43	1,04	1,98
	Gernu-maskuria					NSZ					Tiroidea				
I	110	13,50	1,00			53	1,25	1,00			112	16,51	1,00		
II	55	8,60	0,64	0,48	0,85	54	9,55	1,37	0,95	1,97	69	12,99	0,79	0,62	1,00
III	70	10,01	0,74	0,57	0,97	50	8,03	1,15	0,78	1,69	101	16,92	1,02	0,83	1,27
IV	89	11,13	0,82	0,64	1,06	54	7,30	1,05	0,71	1,55	90	14,28	0,87	0,69	1,08
V	111	13,72	1,02	0,80	1,29	51	6,80	0,98	0,65	1,45	134	18,95	1,15	0,94	1,40

GI: Gabezia-indizea: I (aberatsena) / V (txiroena). TEA: adinaren arabera estandarizatutako tasen arrazoia

DENBORA BILAKAERA

Gizonetan intzidentzia urtero % 0,7 handitu zen 2000tik 2013ra. 2013tik aurrera aldaketa esanguratsua egon zen, urteko % 4,7ko jaitsierarekin. Emakumeetan, joera-aldaketa 2014. urtean gertatu zen; urte horretatik aurrera, intzidentzia urteko % 3,3 jaitsi da.

Kokapen guztietako minbizien intzidentziaren bilakaera, sexuaren arabera. Bizkaia, 2000-2016




Iturria: RCEME

Minbiziaren intzidentzia beherantz doa gizonetan, sexu horretan sarrien agertzen diren tumore gaiztoak murriztu egin direlako: KOM urtean % 12,1 jaitsi da 2013az geroztik, prostatakoa urtean % 2 eta biriketakoaren goranzko joera eten egin da.

Emakumeen kasuan, intzidentziaren goranzko joera eten egin da, batez ere KOMren eragina gutxitzearen ondorioz, baina aldaketak ez dira hain nabarmenak eta ezin da hobekuntza esangarririk aurreikusi. Bularreko minbizia areagotzen ari da, eta baita biriketako ere.

Hurrengo grafikoan, minbiziaren intzidentziaren joera eta urteko aldaketaren portzentaia (UAP) ageri dira sexu bakoitzeko kokapen garrantzitsuenetan. UAPren kolore gorriak aldaketa esanguratsua dela adierazten du.

Kokapen zehaztetako minbizi intzidentziaren denbora bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Urteroko aldaketa-portzentajea (UAP)
RCEME. Bizkaia. 2000-2015



— Gizonak — Emakumeak

* UAP gorritz: esanguratsua UAP beltzez: ez esanguratsua


Gaixotasun kardiobaskularrak. (GNS-10: I00-I99)

2020an, arrazoi kardiobaskularrengatiko 15 160 ospitaleratze izan ziren Bizkaian bizi ziren pertsonen artean. Bizkaian, gaixotasun kardiobaskularrak lehenengo heriotza kausa izan ziren emakumeetan (% 26), eta bigarrena gizonetan (% 22), 3175 heriotzekin.


Hilkortasunaren eta ospitaleratze-maiztasunaren kausa nagusienak garun-hodietako gaixotasuna, kardiopatia iskemikoa eta gaixotasun hipertentsiboak dira.

Zirkulazio-sistemaren gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (GNS-10: I00-I99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



GH: (I10-I16) Gaixotasun hipertentsiboak

GI: (I20-I25) Bihotzeko gaixotasun iskemikoak

BAL: (I30-I43) Perikarditis, endokar., miokar., balbuletako nah..

Arrit.: (I44-I49) Eroapen nahasmendu eta arritmiak


BG: (I50) Bihotzeko gutxiegitasuna

GZB: (I60-I69) Gaixotasun zerebrobaskularrak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hilkortasun tasa esanguratsuki handiagoa da gizonetan emakumeetan baino bihotzeko gaixotasun iskemikoan eta balbuletako gaitzetan.

Gaixotasun kardiobaskular taldeetako hilkortasun tasa estandarizatuak sexuaren arabera. %95eko konfidantza tarreak. Bizkaia 2020



GH: (I10-I15) Gaixot. hipertentsiboak GI: (I20-I25) Bihotzeko gaixot. iskemikoak BAL: (I30-I43) Perikarditis, endokar., miokar., balbuletako nah. Arrit.: (I44-I49) Eroapen nahasmendu eta arritmiak BG: (I50) Bihotzeko gutxiegitasuna GZB: (I60-I69) Gaixotasun zerebrobaskularrak

Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan bihotzeko gaixotasun iskemikoen (GI), miokardioko bihotzekoa barne, eta gaixotasun zerebrobaskularren (GZB) ezaugarri aipagarrienak deskribatzen dira.

Emakumeen hilkortasun gordinak gaixotasun batzuetan gizonena gainditzen duen arren, adinaren arabera estandarizatuz gero, gizonen tasak emakumeen tasen gainetik daude gaixotasun guztietan, bai ospitaleratze-maiztasunean zein hilkortasunean.

Miokardioko infartu akutua (MIA) kardiopatia iskemikoagatik hildakoen edo ospitaleratutako kasuen erdia baino gehiagoren erantzule da.

Gaixotasun kardiobaskular jakinen ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak 100 000ko. Bizkaia 2020

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Kardiopatia Iskemikoa	Gizonak	336,24	311,12*	80,13	76,45*
	Emakumeak	121,94	91,18	42,10	24,62
Miokardioko infartu akutua	Gizonak	145,42	132,77*	30,03	28,13*
	Emakumeak	50,82	36,97	16,61	9,73
GZB hemorragikoa	Gizonak	60,05	55,81*	20,44	19,30
	Emakumeak	47,64	35,90	27,51	17,92
GZB iskemikoa	Gizonak	195,71	184,27*	26,41	26,44
	Emakumeak	160,86	107,11	41,60	21,30
GZB guztira	Gizonak	277,46	260,26*	50,46	49,23
	Emakumeak	238,02	168,33	73,80	41,82


* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Ospitaleratze-maiztasun tasak handiagoak dira gizonetan, adin guztietan. Bihotzeko gaixotasun iskemikoan, kasu gehienak 70 urtetan gertatzen dira gizonetan, baina emakumeetan gorantz jarraitzen du 85 urte eta gehiagokoen adin taldera arte. GZBan, aldiz, maiztasuna adinarekin batera handitzen da bi sexuetan.

Gaixotasun kardiobaskular zehaztutako ospitaleratze-maiztasuna (100 000ko) adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2020

Bihotzeko gaixotasun iskemikoa



Gaixotasun zerebrobaskularra




Iturria: Ospitaletako Alteen Erregistroa DGOM

Bizkaian, 2001 eta 2020 artean, Giaren ondoriozko ospitaleratzeak eta hilkortasunak behera egin dute. GZBaren ondoriozko hilkortasunak ere behera egin du, eta ospitaleratzeak gizonetan zertxobait jaitsi diren arren, egonkor daude emakumeetan.


Gaixotasun kardiobaskular zehaztutako ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasunaren bilakaera sexuaren arabera. Bizkaia 2001-2020

Ospitaleratze-maiztasuna

Bihotzeko g. iskemikoa (GNS 10: I20-I25)




Gai. zerebrobaskularra (GNS 10: I60-I69)




Hilkortasuna

Bihotzeko g. iskemikoa (GNS 10: I20-I25)



Gai. zerebrobaskularra (GNS 10: I60-I69)



— Gizonak — Emakumeak

Iturria: Ospitaletako Alteen Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

ESlen artean ez da alde esanguratsurik ikusten gaixotasun kardiobaskularren ondoriozko hilkortasunari dagokionean.

**Gaixotasun kardiobaskularren ondoriozko hilkortasun tasa estandarizatua
(100 000ko) Bizkaiko ESletan. 2020**

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizatua	
Barakaldo-Sestao	251,45	171,11
Barrualde-Galdakao	266,98	167,36
Bilbo-Basurtu	246,01	154,58
Ezkerraldea-Enkart.-Gur.	273,89	149,04
Uribe	254,55	153,12
BIZKAIA	254,55	158,73


Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Arnas-apatatuko gaixotasunak. (GNS-10: J00-J99)


2020an arnas-apatatuko gaixotasunengatiko 13 770 ospitaleratze egon ziren Bizkaian; horietatik 3161 (% 23) COVID-19arekin erlazionatuta zeuden. 831 pertsona hil ziren arnas arazoengatik. Erikortasunaren eta hilkortasunaren eragile nagusiak pneumoniak eta beheko arnasbideetako gaixotasun kronikoak izan ziren. Pneumonien % 57 SARS-CoV-2k eragin zituen.

Arnas-apatatuko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%). (GNS-10: J00-J99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



NEU: (J09-J18) Gripea eta pneumonia

I-BA: (J20-J22) Beheko arnasbideetako beste infekzio akutu batzuk

I-GA: (J30-J39) Goiko arnas bideetako beste gaix. Batzuk

BGBK: (J40-J47) Beheko arnas bideetako gaix. kronikoak

KA: (J60-J70) Biriketako gaix., kanpoko agenteek sortuak

INTERS: (J80-J84) Beste arnas gaixotasun batzuk, batez ere interstizioa afektatzen dutenak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan arnas bideetako hurrengo gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusienak deskribatzen dira: BGBK (GNS 10: J40-J44; J47) eta asma (GNS 10: J45-J46).

BGBKgatiko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasak hiru aldiz handiagoak dira gizonetan emakumeetan baino. Asmaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasak, aldiz, altuagoak izan ziren emakumeetan.

BGBKren eta asmaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak 100 000ko. Bizkaia 2020


		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatu	T. gordina	T. estandarizatu
BGBK J40-J44	Gizonak	210,72	202,01*	31,29	30,81*
	Emakumeak	75,31	59,28	11,41	6,70
Asma J45-J46	Gizonak	32,74	33,13*	1,81	1,74*
	Emakumeak	54,51	46,51	7,88	4,37

* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

BGBK eta asmagatiko ospitaleratzeak adinarekin areagotzen dira, maximoa 85 urte baino gehiagokoetan kokatzen delarik.

BGBK eta asmaren ospitaleratze-maiztasuna adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2020



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Barakaldo-Sestao ESlan bizi direnek BGBKgatiko ospitaleratze-maiztasun baxuagoak aurkezten dituzte.

BGBKren ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak (100 000ko) sexu eta ESlaren arabera. Bizkaia 2020

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizada	
Barakaldo-Sestao	156,67*	26,74*
Barrualde-Galdakao	212,16	61,15
Bilbo-Basurtu	179,43	68,06
Ezkerraldea-Enkart.-Gur.	245,96	62,42
Uribe	201,37	61,98
BIZKAIA	202,01	59,28

* Bizkaikoarekin alderatuta esanguratsuki desberdina

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

2020an beheko arnas bideetako gaixotasun kronikoen ondoriozko ospitaleratze-maiztasunak behera egin zuen nabarmen. Hau azaldu liteke, neurri batean, paziente hauei COVIDak bereziki eragin zielako.


BGBK eta asmaren ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera (tasa estandarizatuak). Bizkaia 2001-2020

Ospitaleratze-maiztasuna

Hilkortasuna


BGBK

(GNS 10: J40-J44)




Asma

(GNS 10: J45-J46)




BGBK

(GNS 10: J40-J44)



Asma

(GNS 10: J45-J46)



— Gizonak — Emakumeak

Iturria: Ospitaletako Alteen Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Digestio-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: K00-K95)

Digestio-aparatuko gaixotasunengatik 14 820 ospitale-alta eman ziren Bizkaian 2020an, gizonetan (% 56) emakumeetan baino gehiago. Ospitaleratze gehienak hurrengo kausengatik izan ziren: behazun-xixkuko, behazunbideetako eta pankreako nahasmenduak, hesteetako beste gaixotasunak eta herniak.


Bizkaian bizi ziren 528 pertsona hil ziren urte berean digestio-aparatuko gaixotasunengatik. Gehienak gibelesko gaixotasunak zituzten gizonak ziren. Emakumeen artean digestio-aparatuko beste gaixotasun batzuk izan ziren heriotz gehien eragin zituztenak. Digestio-aparatuko gaixotasunen hilkortasun tasa estandarizatuek behera egin dute 2001. urtetik bi sexuetan.

Digestio-aparatuko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: K00-K95). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



HUD: (K20-K31) Hestegorri, urdail eta duodenoko gaix.

APEN: (K35-K38) Apendizeko gaixotasuna

HER: (K40-K46) Hernia

HES: (K55-K64) Hesteetako beste gaixotasun batzuk

GIB: (K70-K77) Gibelesko gaixotasunak

BEHA: (K80-K87) Behazun-xixkuko, behazunbideetako eta pankreako nahasmenduak

PER: (K65.0) Peritonitis akutua

HEM: (K92.2) Urdail-hesteetako odoljariora

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo grafiko eta tauletan gibelesko zirrosiaren ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira (K70, K73, K74, K76.9).

Zirrosiak eragindako hiru ospitaleratzetik ia bi 55 eta 74 urte bitarteko gizona eta emakumeen artean gertatu ziren.

Gizonetan zirrosiagatiko ospitaleratze-maiztasun tasa emakumeetan ematen denaren laukoitza da, eta hilkortasuna, hirukoitza.

Gibeleko zirrosiaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordin eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2020

	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna		
	T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak	
Zirrosia	Gizonak	52,45	47,62*	12,12	11,30*
	Emakumeak	14,09	11,98	3,86	2,84

* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Zirrosiak eragindako ospitaleratze-maiztasuna aztertuta, Bilbo-Basurtun bizi direnek tasa altuagoak dituzte Bizkaikoek baino, eta alde hori estatistikoki esanguratsua da. Aldiz, Barrualde-Galdakaoko, Ezkerraldea-Enkarterriko eta Uribeko gizonak tasa baxuagoak dituzte.

Zirrosiaren ospitaleratze-maiztasuna tasa estandarizatuak (100 000ko). Bizkaiko ESletan, 2020

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizada	
Barakaldo-Sestao	68,65	13,90
Barrualde-Galdakao	19,44*	4,48*
Bilbo-Basurtu	92,22*	23,44*
Ezkerraldea-Enkart.-Gur.	23,38*	3,57*
Uribe	22,19*	7,24
BIZKAIA	47,62	11,98

* Bizkaikoarekin alderatuta esanguratsuki desberdina


Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Zirrosiagatiko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasen joera nabarmenki beheranzkoa da bi sexuetan.

Zirrosiaren ospitaleratze-maiztasunaren eta hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera. Bizkaia 2001-2020


Ospitaleratze-maiztasuna

Zirrosia (GNS 10: K70.3, K74.3-K74.6)



Hilkortasuna

Zirrosia (GNS 10: K70.3, K74.3-K74.6)



— Gizonak — Emakumeak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Nahasmendu mentalak eta portaerarenak. (F01-F99)

Nahasmendu mentalak eta portaeraren nahasmenduak direla eta, 2020an, 4209 ospitaleratze egon ziren Bizkaian. Ospitaleratze gehien eragin zituzten taldeak hurrengoak dira: eskizofrenia, nahasmendu eskizotipal eta deliriozkoak, afektibitate-nahasmenduak eta sustantzia psikoaktiboen erabilerak sortutako nahasmenduak.


Nahasmendu mentalen hilkortasuna F01-F09 (nahasmendu mental organikoak) taldera mugatzen da ia soilik.

Nahasmendu mentalen eta portaeraren nahasmenduen ospitaleratze eta hilkortasun maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: F01-F99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



DEM: (F01-F09) Nahas. mental organikoak

SUST: (F10-F19) Adim. eta port. nahas. subs. psiko

ESK: (F20-F29) Eskizofr., nahas. eskizotipalak eta deliriozko nahas.

AFEK: (F30-F39) Nahasmendu afektiboak


NEU: (F40-F48) Nahasmendu neurotikoak

NOR: (F60-F69) Nortasun eta portaeraren nahas.

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Substantzia psikoaktiboen erabilerak sortutako nahasmenduen eta eskizofrenia/nahasmendu-eskizotipalen maiztasun tasak altuagoak dira gizonetan, eta afektibitate-nahasmenduen, eta nortasun-portaeraren nahasmenduen maiztasunak, altuagoak dira emakumeetan.

Nahasmendu mentalen talde desberdinen ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak sexu bakoitzean. %95eko konfiantza-tartea. Bizkaia 2020



Dem: Dementziak (F01-09); Sust: Substantzia psikoaktiboaren erabilera sortutako nahas. (F10-19); Esk: Eskizofr., nahas. eskizotipal eta deliriozko tr. (F20-29); Afek: Nahasmendu afektiboak (F30-39); Neu: Nahasmendu neuropatikoak (F40-48); Nor: Nortasun eta portaeraren nahas. (F60-69)

Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan ondorengo gaixotasun mental eta portaeraren gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira: nahasmendu mental organikoak (F01-F09), eskizofrenia (F20) eta nahasmendu afektiboak (F30-F39), espezifiki nahasmendu bipolarra (F31) eta depresioa (F32-F33).

Eskizofreniak eragindako ospitale-maiztasuna handiagoa da gizonetan emakumeetan baino, eta nahasmendu afektiboek eragindakoa handiagoa da emakumeetan. Nahasmendu mental organikoen ondoriozko hilkortasun gordina handiagoa da emakumeetan gizonetan baino, baina tasak adinaren arabera estandarizatzen badira parekatu egiten dira.

Ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna nahasmendu mental organikoetan, eskizofrenian eta nahasmendu afektiboetan. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2020

Nahas. mental organikoak	Sexu	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Nahas. mental organikoak	Gizonak	14,65	13,92	52,45	52,80
	Emakumeak	19,79	13,99	108,02	54,46
Eskizofrenia	Gizonak	85,73	82,11*	0,36	0,33
	Emakumeak	39,59	37,20	0,84	0,44
Nahasmendu bipolarra	Gizonak	33,10	32,27*	--	--
	Emakumeak	50,15	46,78	0,34	0,22
Depresioa	Gizonak	19,53	18,56*	0,36	0,35
	Emakumeak	47,64	44,08	0,50	0,26
Nahasmendu afektiboak	Gizonak	60,05	57,92*	0,36	0,35
	Emakumeak	106,51	99,07	0,84	0,48


* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Nahasmendu mental organikoek eragindako ospitaleratze-maiztasun handiena gizon nagusietan gertatzen da; eskizofreniaren maiztasun altuena gizon gazteetan ematen da; afektibitate-nahasmenduek maiztasun altuagoa dute emakumeetan ia adin-talde guztietan.

Nahasmendu mental organikoen, eskizofreniaren eta afektibitate-nahasmenduen (bipolarra eta depresiboa) ospitaleratze-maiztasuna adin eta sexuaren arabera Bizkaia 2020


Nahas. mental organikoak (GNS-10: F01-F09)




Eskizofrenia (GNS-10: F20)



Nahas. afektibo bipolarra (GNS-10: F31)



Nahas. afektibo depresiboa (GNS-10: F32-F33)



■ Kasuak gizonak ● Tasak gizonak ■ Kasuak emakum. ◆ Tasak emakum.

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Nahasmendu afektiboen ospitaleratze-maiztasuna esanguratsuki baxuagoa da Barrualde-Galdakao ESiko gizonetan.

Nahasmendu afektiboen ospitaleratze-maiztasunaren tasa estandarizatuak sexu eta ESiaren arabera (100 000ko) Bizkaia 2020

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizada	
Barakaldo-Sestao	43,49	115,57
Barrualde-Galdakao	40,36*	112,71
Bilbo-Basurtu	75,98	94,15
Ezkerraldea-Enkart.-Gur.	51,63	92,77
Uribe	68,52	85,75
BIZKAIA	57,92	99,07


* Bizkaikoarekin konparatuta esanguratsuki desberdina

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

2001 eta 2020 bitartean nahasmendu mental organikoen hilkortasun tasek gorakada erakusten dute bi sexuetan.

**Nahasmendu mental organikoen hilkortasunaren bilakaera
sexuaren arabera. Bizkaia 2001-2020**

Nahasmendu mental organikoak



Iturria: Hilkortasun Erregistroa


Nerbio-sistemako gaixotasunak. (G00-G99)

2020an nerbio-sistemako (NS) gaixotasunen ondorioz 2277 ospitaleratze egon ziren Bizkaian. Ospitaleratze gehien eragin zituzten taldeak trastorno episodiko eta paroxistikoak izan ziren, heren bat epilepsia izanik.


Heriotzak eragin zituzten gaixotasunak, NSaren endekapenezkoak izan ziren (Alzheimerre batez ere) eta trastorno estrapiramidalak eta mugimendu-trastornoak (Parkinson batez ere)

Nerbio-sistemako gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: G00-G99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



ESTRAPIR: (G20-G26) Trast. estrapiramidalak eta mugimendu-trastornoak

ENDEK: (G30-G32) NSko bestelako endekapen-gaix. batzuk

PAROX: (G40-G47) Trast. episodiko eta paroxistikoak

NER: (G50-G59) Nerbioen, nerbio-sustraien eta plexuen trast.

POLINEU: (G60-G65) Polineuropatiak eta NSparen beste trast. batzuk

MINA: G89

ATRO: (G10-G14) NSZko atrofia sistemikoak

MUSK: (G70-G73) Juntura mioneuralaren eta muskuluaren gaix.

Iturria: Ospitaletako Alteen Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan NSko hurrengo gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira: Alzheimer-en (G30) eta Parkinson-en (G20) gaixotasunak.

Alzheimer-en gaixotasunaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasuna oso baxua da; hilkortasuna nabarmen altuagoa da emakumeetan gizonetan baino.


Alzheimer-en eta Parkinson-en gaixotasunen ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000). Bizkaia 2020

	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna		
	T. gordina	T. estandarizatu	T. gordina	T. estandarizatu	
Alzheimer-en gaixotasuna	Gizonak	0,90	0,86	17,91	17,71
	Emakumeak	1,51	0,90	47,30	24,48*
Parkinson-en gaixotasuna	Gizonak	5,61	5,03	13,20	12,83
	Emakumeak	3,52	2,99	14,43	8,46

* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Alzheimer-en eta Parkinson-en gaixotasunen hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera. Bizkaia 2001-2020



Iturria: Hilkortasun Erregistroa


Gaixotasun endokrino, nutrizional eta metabolikoak. (GNS-10: E00-E89)

Gaixotasun endokrinoen ondorioz 2053 ospitaleratze eta 310 heriotz egon ziren Bizkaian 2017an. Ospitaleratze altueneko taldeak diabetes mellitusa (DM), trastorno metabolikoak eta obesitatea dira.


Diabetea da taldeko hilkortasunaren kausa nagusia, ondoren trastorno metabolikoak kokatzen direlarik.

Talde endokrinoko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: E00-E89). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



TIR: (E00-E07) Tiroide guruineko trastornoak

DM: (E08-E14) Diabetes mellitus-a

BESTE_GE: (E20-E35) Beste guruin endokrino batzuen trastornoak.

MALNU: (E40-E64) Malnutrizioa eta bestelako nutrizio-eskasia batzuk

OBES: (E65-E68) Obesitatea eta bestelako hiper-elikadura batzuk

METAB: (E70-E88) Trastorno metabolikoak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikotan DMaren (E10-E14) ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira.

Ospitaleratze-tasak esanguratsuki altuagoak dira gizonetan, eta nahiz eta DMaren hilkortasun tasa gordina emakumeetan altuagoa izan, adinaren arabera estandarizazioa egitean, gizonetan altuagoa izatera igarotzen da.

**Diabetes mellitus-aren (DM) ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna.
Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000). Bizkaia 2020**

	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna		
	T. gordina	T. estandarizatu	T. gordina	T. estandarizatu	
Diabetes mellitus	Gizonak	105,27	98,89*	23,51	24,03*
	Emakumeak	47,64	37,28	25,16	13,56

* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

DMaren ospitaleratze-tasetan ESlen arteko desberdintasunak daude. Uribe ESiko emakumeek eta Bilbo-Basurtu ESiko gizonak tasa baxuagoak dituzte, estadistikoki esanguratsuak direnak. Barakaldo-Sestao ESiko gizonak aldiz, altuagoak.

**DMaren ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak
(100 000ko) sexu eta ESiren arabera. Bizkaia 2020**

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizatu	
Barakaldo-Sestao	154,92*	37,55
Barrualde-Galdakao	108,91	46,85
Bilbo-Basurtu	63,70*	31,31
Ezkerraldea-Enkart.-Gur.	139,54	46,98
Uribe	76,84	21,80*
BIZKAIA	98,89	37,28

* Bizkaikoarekin konparatuta esanguratsuki desberdina

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM


Sistema genito-urinarioko gaixotasunak. (GNS-10: N00-N99)

2020an urtean zehar 8005 ospitaleratze egon ziren Bizkaian kausa genito-urinarioengatik. Ospitaleratze gehienak gernubideetako infekzioek, urolitiasiek eta sexu-organoen gaixotasunek eragin zituzten.


374 heriotz gertatu ziren, gehiengoa giltzurrun-gutxiegitasunek eta gernubideetako infekzioek eragindakoak.

Sistema genitourinarioko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: N00-N99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



TUB: (N10-N16) Giltzurruneko gaixotasun tubulo-interstizialak

GG: (N17-N19) Giltzurrun-gutxiegitasuna

LIT: (N20-N23) Urolitiasia

INFEK: (N39.0) Gernu-traktuko infekzioa

PROS: (N40) Prostatako hiperplasia

G-GEN: (N41-N53) Gizonen org. genit. trast.

BULAR: (N60-N65) Bularreko trastornoak

E-GEN: (N70-N98) Emakum. org. genit. trast.

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Giltzurrunen-gutxiegitasun (GG) eta gernubideetako infekzioen ezaugarri epidemiologiko garrantzitsuenak ondorengo tauletan eta grafikoetan deskribatzen dira.

GGren ondoriozko hilkortasuna eta ospitaleratze-maiztasuna altuagoak dira gizonetan, emakumeetan baino, modu estatistikoki esanguratsuan. Gernubideetako infekzioei dagokienez, ospitaleratze gehiago ematen dira gizonetan emakumeetan baino, eta hilkortasunean ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.

Giltzurrun-gutxiegitasunaren eta gernubideetako infekzioaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2020


	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna		
	T. gordina	T. estandarizatu	T. gordina	T. estandarizatu	
Giltzurrun-gutxiegitasuna	Gizonak	67,10	64,98*	15,92	15,79*
	Emakumeak	44,45	29,27	15,93	8,59
Gernubideetako infekzioa	Gizonak	150,49	147,11*	9,41	10,44
	Emakumeak	160,86	105,61	15,26	7,55

* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

GGren hilkortasun tasak adinarekin handitzen dira eta beti dira altuagoak gizonetan. 2020an 70 giltzurruneko transplante (GNS-10: OTY) egin ziren; 41ek, diagnostiko nagusian, giltzurrun-gaixotasun kronikoa zuten


Giltzurrun-gutxiegitasunaren hilkortasuna adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2020. (GNS-10: N17-N19)



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

2001-2020 tartean GGren ondoriozko hilkortasuna beheranzko joera izan du sexu bietan (gizonetan nabarmenagoa), eta gernubideetako infekzioen ondoriozko heriotza-tasa handitu egin da

GG eta gernubideetako infekzioaren hilkortasunaren bilakaera sexuaren arabera. Bizkaia 2001-2020



Iturria: Hilkortasun Erregistroa


Erikortasun eta hilkortasunaren kanpoko arrazoiak. (CIE-10: V00-Y99)

2020. urtean Bizkaian bizi ziren pertsonen 10 959 ospitaleratze egon ziren kanpoko arrazoiak eraginda. Erorikoak eta prozedura mediko eta kirurgikoak izan ziren ospitaleratze-kausa ohikoenak.


394 pertsona hil ziren (%66 gizonezkoak), lehenengo kausak erorikoak eta suizidioak izan zirelarik.

Kanpoko arrazoiaren ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (GNS-10: V00-Y99). Bizkaia 2020


Maiztasuna, gizonak




Hilkortasuna, gizonak



Maiztasuna, emakumeak



Hilkortasuna, emakumeak



GARRAI: (V00-V99) Garraio-istripuak
EROR: (W00-W19) Erorikoak
B_LESI (W20-X59) Oharkabeko lesio traumatikoen beste kanpoko arrazoi batzuk
SUIZ: (X60-X84) Intentziozko auto-kaltea

KIRURG: (Y83) Prozedura kirurgikoak
MED: (Y84) Bestelako prozedura mediko batzuk
B_BUXA: (W80) Besteen inhal. eta irensk. buxadura
INTOX: (X40-X49) Istrip. intoxikazioa sustantzia kaltegarriek sortua

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Kanpoko arrazoiengatik hilkortasun-tasak azkoz altuagoak dira gizonetan emakumeetan baino. Bizkaiko ESlen artean ez da alderik ikusten kanpoko arrazoiak eragindako heriotza-tasetan. Arrazoi hauek eragindako hilkortasunak beheranzko joera izan du, gizonezkoetan nabarmenagoa.

Ondorengo taula eta grafikoetan garraio-istripuen (V00-V99), erorikoen (W00-W19) eta suizidioen (X60-X84) erikortasun eta hilkortasunaren ezaugarri epidemiologiko garrantzitsuenak deskribatzen dira.

Garraio-istripuen ondoriozko ospitaleratze-maiztasunaren tasa ia lau aldiz handiagoa da gizonetan emakumeetan baino. Erorikoen eta suizidioaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna ere nabarmen handiagoak dira gizonetan.

